




Estereoskopiak: 16+16

EUSKAL MUSEOKO ERAKUSKETA – EXPOSICIÓN DEL MUSEO VASCO



ESTEREOSKOPIAK 16+16

- ▶ Estereoskopiak: 16+16
- ▶ **ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN**
- ▶ Antolaketa / Organización: Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco
- ▶ Proiektua eta koordinazioa / Proyecto y Coordinación: Maite Jimenez
- ▶ Zuzendaritza literarioa / Dirección literaria: Mari Jose Olaziregi (Etxepare Euskal Institutua / Instituto Vasco Etxepare)
- ▶ Instalazioen eta audiogiden ekoizpena / Producción de instalaciones y audioguías: Estudios Durero
- ▶ Gaztelaniarako eta ingeleserako itzulpenak, berriazko aipamenak izan ezik / Traducciones al español y al inglés, salvo mención expresa: Flexiguía-Estudios Durero
- ▶ Grafikoa / Gráfica: Comunicación Gráfica
- ▶ **KATALOGOA / CATÁLOGO**
- ▶ Argitalpena / Edición: Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco
- ▶ Diseinu eta maketazioa / Diseño y realización: Comunicación Gráfica
- ▶ Gaztelaniarako eta ingeleserako itzulpenak, berriazko aipamenak izan ezik / Traducciones al español y al inglés, salvo mención expresa: Flexiguía-Estudios Durero
- ▶ Lankidetzeta / Colaboración: Etxepare

PRESENTACIÓN

- ▶ Una de las misiones del Museo es la difusión del patrimonio cultural que conserva. En esta ocasión el Museo Vasco de Bilbao presenta una exposición temporal y su catálogo: *Estereoskopiak 16+16*.
- ▶ *Estereoskopiak 16+16* trata de un pequeño tesoro de imágenes que el Museo Vasco de Bilbao custodia: el archivo fotográfico de Eulalia Abaitua (Bilbao, 1853-1943). Abaitua es una mujer que gracias a su actividad como fotógrafa se ha hecho un hueco en nuestra historia colectiva, nos pertenece. Su singular mirada fijada en soportes demostrativos de su tiempo son ilustraciones, vistas, escenas, es decir, miradas del pasado. Pasado que podemos evocar gracias al impagable legado de esta formidable fotógrafa aficionada.
- ▶ El Museo Vasco de Bilbao abre la séptima exposición dedicada a esta autora¹. *Estereoskopiak 16+16* rompe con los formatos habituales y es el resultado de sumar dos contenidos: el pasado visual, que apreciaremos con gafas para ver en 3 dimensiones, y el presente oral, que escucharemos con audioguías, en femenino plural.
- ▶ El primer sumando son 16 imágenes de Eulalia Abaitua. La gran mayoría de las fotografías de esta autora son en blanco y negro, en soporte de vidrio con formato estereoscópico, dos pares fotográficos que, colocados en un aparato, se visualizan en 3 dimensiones. Hasta ahora las imágenes de Abaitua que habíamos tenido la oportunidad de ver en el Museo, y desde él, habían sido copias bidimensionales, es decir, reproducciones ampliadas en papel fotográfico de uno de los pares estereoscópicos de la placa de vidrio original. En esta ocasión hemos logrado hacer algo diferente. Abaitua aquí se exhibe con una visión distinta, quizá más cercana al principio con el que esta autora creó una gran parte de su archivo, la fotografía estereoscópica o en 3 dimensiones². Lo que aquí se muestra son reproducciones en formato anaglifo de poliéster, técnica de reproducción de imágenes en 3D, dentro de pantallas de 110 cm x 110 cm retroiluminadas con leds. Para apreciarlas como imágenes tridimensionales son necesarias unas gafas que tienen los cristales de color diferente, uno azul y otro rojo. Los anaglifos materializan el primer 16 del título, son el contenido visual de la muestra, escenas de nuestro pasado en 3 dimensiones debidas a Eulalia Abaitua.
- ▶ Los criterios que nos guiaron en la selección de las fotografías fueron varios: la originalidad (cinco placas están documentadas con más o menos datos), no haber sido expuestas en ocasiones anteriores y permitir una reproducción satisfactoria. Las diez y seis imágenes de Eulalia Abaitua resumen los contenidos de su labor como fotógrafa a comienzos del siglo XX. Estas son, a nuestro entender, algunas de sus claves. Tres placas poseen la inicial "A" manuscrita, la firma de la autora. Ocho placas están viradas a sepia con mayor o menor intensidad, lo que nos permite reconocer el trabajo de laboratorio que Abaitua denominó "Tonos calientes"³. Todas las imágenes salvo una están tomadas en exteriores. La realizada en interior retrata a una de las hijas de la fotógrafa, M^o Concepción (familiarmente, Conchita) en plano general, de pie, pero se conserva otra toma de esa misma sesión con la modelo sentada. Varias fotografías nos muestran el pasado agrícola y marinero de nuestro pueblo. Otras recogen hechos puntuales, pura coincidencia del tiempo, caso de la cuestación o las obras de un camino. Hay elementos que aún hoy podemos reconocer, el perfil de la iglesia de San Antón, el muelle de Las Arenas, alguna casa de la plaza de Lekeitio o la playa de La Concha. También hay imágenes para ilustrar el ocio, el tiempo libre, tanto el de los adultos como el de los niños. Y los retratos que, aunque en este caso son de amplio encuadre, reflejan el interés de Abaitua por las personas, sus posturas, sus miradas, sus quehaceres y sus sonrisas. Poco queda de aquel mundo tras el paso de un siglo, sin embargo estas imágenes son puertas y caminos que nos facilitan e ilustran algo de nuestro pasado y gracias a esta fotógrafa podemos explorarlo y comprenderlo.
- ▶ El segundo sumando se refiere al contenido verbal de la exposición, trata de poner palabras a las imágenes. Aquí también encontramos ruptura con respecto a las ediciones anteriores. Los únicos textos que hasta ahora habían acompañado a las fotografías de Abaitua aludían a su autoría, título, especificaciones del original, cronología, datos más o menos descriptivos... En *estereoskopiak 16+16* esos textos ocupan un segundo plano, son un complemento. Ahora la idea es otra, tiene que ver con la literatura contemporánea, y corre a cargo de algunas de nuestras escritoras en lengua vasca. Para su elección el Museo contó con el asesoramiento literario de Mari Jose Olaziregi, profesora titular de la Universidad del País Vasco y directora para la Promoción y Difusión del Euskara en el Instituto Vasco Etxepare. Olaziregi, desde su autoridad profesional, nos sugirió el listado de escritoras vascas que podrían "conversar" con las fotografías de Abaitua. El resultado ha sido, sin duda, excelente, por cuanto los visitantes podrán disfrutar del diálogo que las creadoras han establecido con las fotografías.
- ▶ Podríamos decir que la lectura de las fotografías de Eulalia Abaitua puede ser muy diversa y sugerente⁴. El presente maridaje es una propuesta y aquí está el resultado. La presentación de las obras escritas, tanto en la exposición como en el catálogo, sigue un orden, es el dado por el número que tienen las imágenes en el archivo Abaitua, de tal forma que:

AURKEZPENA

- ▶ Museoak duen eginkizunetako bat barnean gordetzen duen kultura-ondarea ezagutzera ematea da. Oraingoan, Bilboko Euskal Museoak aldi baterako erakusketa bat eta haren katalogoa aurkezten ditu: *Estereoskopiak 16+16*.
- ▶ *Estereoskopiak 16+16* erakusketak Bilboko Euskal Museoak gordetzen dituen irudien altxor txiki bat du aztergai: Eulalia Abaituaren argazki-artxiboa (Bilbo, 1853-1943). Argazkigintzan egindako jarduerari esker, Abaituak toki bat lortu du gure historia kolektiboan, eta, orain, geurea da. Haren begirada berezia garai baten erakusgarri diren euskarrietan finkatu da. Orduko ilustrazioak, ikuspegiak eta eszenak dira, hau da, iraganeko begiradak. Iragan hori gogora ekar dezakegu, argazkilari amateur bikain honen ondare ordainezinari esker.
- ▶ Bilboko Euskal Museoak egile horri eskeintzen dion zaspigarren erakusketa abiarazi du¹. *Estereoskopiak 16+16* erakusketak ohiko formatuekin hausten du, eta bi eduki batzearen emaitza da: batetik, ikusizko iragana dago, 3 dimentsioko betaurrekoen bidez ikusiko duguna; eta, bestetik, ahozko oraina, audiogidekin entzungo duguna, pluralean eta femeninoan.
- ▶ Lehen batugaia Eulalia Abaituaren 16 irudi daude. Egile honen argazki gehienak zuri-beltzean daude, beirazko euskarrian eginda formatu estereoskopikoarekin, eta gailu batean jarrita 3 dimentsiotan bistaraten diren bi pare fotografikorekin. Orain arte Museoan eta Museotik ikusi ditugun Abaituaren irudiak bi dimentsioko kopia izan dira, hau da, beirazko jatorrizko plakaren pare estereoskopiko baten erreproduzioak, argazki-paperean handiagotuak. Oraingoan egin duguna desberdina da. Hemen, ikuspegi desberdin batez erakusten dugu Abaitua, beharbada artxiboaren zati handi bat sortzeko egileak izan zuen printzipiora gehiago hurbilduta, hau da, argazki estereoskopikora edo 3 dimentsiokora². Hemen ikusgai ditugun erreproduzioak poliesterreko anaglifo-formatuan daude, irudiak 3 dimentsiotan erreproduzitzeko teknika batean, ledekin berrargitutako 110 cm x 110 cm neurriko pantailen barruan. Hiru dimentsioko irudi gisa ikusteko, kolore desberdinetako kristalak –bat urdina eta bestea gorria– dituzten betaurrekoak behar dira. Anaglifoek izenburuko lehen 16 zenbakia gauzatzen dute, erakusketako ikusizko edukia eratzen dute; gure iraganeko 3 dimentsioko eszenak dira, Eulalia Abaituak eginak.
- ▶ Hainbat irizpide hartu genituen kontuan argazkiak hautatzeko: originaltasuna (bost plaka datu gehiagorekin edo gutxiagorekin daude dokumentatuta), lehenago erakusketetan ikusgai ez egotea, eta erreproduzio ona egiteko moduan egotea. Eulalia Abaituaren hamasei irudiak XX. mendearen hasieran argazkilari gisa egin zuen lanaren edukien laburpena dira. Hauek dira, gure ustez, gakoetako batzuk. Hiru plakak “A” hasierako hizkia dute eskuz idatzita, egilearen sinadura. Zortzi plaka sepiara biratuta daude intentsitate gehiagoz edo gutxiagoz, eta, horren bidez, Abaituak “tonu beroak” deitu zuen laborategiko lana ikus dezakegu³. Bat izan ezik, kanpoaldean hartuak dira irudi guztiak. Barrualdean egindako irudian, argazkilariaren alabetako bat agertzen da, M^a Concepción (familia artean, Conchita), plano orokorrean, zutik. Saio bereko beste harraldi bat kontserbatu da, modeloa eserita dagoela. Hainbat argazki gure herriaren nekazaritza- eta marinel-izaerako iragana erakusten digute. Beste argazki batzuek gertaera zehatzak biltzen dituzte, denboran batera gertatu zirelako, esate baterako, eskea edo bideko obrak. Elementu batzuk ondo ezagutu ditzakegu oraindik, adibidez, San Anton elizaren soslai, Areetako moila, Lelaitioko plazako etxeren bat edota Kontxako hondartza. Beste irudi batzuek aisialdia eta astia irudikatzen dute, hala helduena nola haurrena. Erretratuek, enkoadratze zabalekoak izan arren, argi islatzen dute zenbateko interesa piztu zuten Abaituarengan pertsonen, haien jarrerak, begiradak, zereginek eta irribareek. Mende bat igarota, ezer gutxi geratzen da orduko hartaz, baina, hala ere, irudi hauek ate eta bide modukoak dira, gure iraganaren berri ematen eta irudikatzen baitute; orain, argazkilari honi esker, sakon iker eta uler dezakegu.
- ▶ Bigarren batugaia erakusketaren ahozko edukiarri dagokio, eta irudiei hitzak jartzen saiatzen da. Hor ere aurreko edizioekiko haustura agertzen da. Orain arte Abaituaren argazkiekin batera agertu diren testu bakarrik datu deskriptiboak izan dira gutxi gorabehera, egilea, titulua, jatorrizkoaren zehaztapenak, kronologia... *Estereoskopiak 16+16* erakusketan, berriz, testuek bigarren plano hartzen dute, osagarria dira. Oraingo ideia bestelakoa da, literatura garaikideari lotuta dago, eta euskarazko emakume idazle batzuen eskutik etorri da. Idazle horiek hautatzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra eta Etxepare Institutuko Euskara Sustatzeko eta Zabaltzeko zuzendaria den Mari Jose Olaziregiren literatura-aholkularitza izan du Museoak. Lanbidean duen itzalaz baliatuz, Abaituaren argazkiekin “hizketan” jardun zitezkeen euskal emakume idazleen zerrenda iradoki zigun Olaziregik. Emaitza bikaina izan da, zalantzarik gabe, eta, beraz, bisitariak aukera ederra izango dute sortzaile horiek argazkiekin egin duten hizketaldiaz gozatu ahal izateko.
- ▶ Nolabait, esan genezake Eulalia Abaituaren argazkien irakurketa askotarikoa eta oso iradokitzailea izan daitekeela⁴. Bat-egite hau proposamen bat da, eta emaitza agerian dago. Idatzizko obrak erakusketan eta katalogoan aurkeztean, ordena bati jarraitu diogu, hain zuzen, Abaitua artxiboan irudiek duten zenbakiek emandako ordenari.

[01] ABA-00656 + Aurelia Arkotxa = *Trentza luzeak* / *Trenzas largas* / *Long Braids*



[02] ABA-00658 + Laura Mintegi = *Ezbeharra eta Elkartasuna / Desgracia y Solidaridad / Tragedy and Solidarity*



[03] ABA-00659 + Lourdes Oñederra = *Gizakiaren eta animalia-aren arteko adostasuna pribilegio / El acuerdo entre humano y animal como privilegio / Understanding between Human and Animal, a Privilege*



[04] ABA-00660 + Katixa Agirre = *Peoiak eta pioneroak / Peones y pioneros / Peons and Pioneers*



[05] ABA-00744 + Leire Bilbao = *Ezkerreko eskua* / *La mano izquierda* / *The Left Hand*



[06] ABA-00745 + Uxue Alberdi = *Atsoaren koplak* (Atsoak hor jarraitzen du) / *Coplas de la anciana* (La anciana sigue ahí) / *The Old Woman's Couplets* (The Old Woman Is Still There)



[07] ABA-00772 + Ana Urkiza = *Ez ginen
lehenagokoak / No éramos los de antes / We
Weren't the Same as Before*



[08] ABA-00788 + Mariasun Landa = *Fantasma*
/ Fantasma / Ghost



[09] ABA-00837 + Yolanda Arrieta = Argi-harrapariaren trena / El tren de la capturadora de la luz / The Train Taken by the Woman Who Captured Light



[10] ABA-00976 + Karmele Jaio = *Hartxintzar*,
harribitxi / *Piedras preciosas* / *Precious Stone*




[11] ABA-00978 + Miren Agur Meabe = *Gutuna hiru post-datarkin/ Carta con tres posdatas / Letter with Three Postscripts*



[12] ABA-00998 + Arantxa Urretabizkaia =
*Itsasoa, bare / El mar en calma / The Sea Is
Calm*



[13] ABA-01054 + Tere Irastortza = *Hiru dimentsiotan / En tres dimensiones / In Three Dimensions*




[14] ABA-01057 + Itxaro Borda = Oraina,
*ukigarri / Tocando el presente / Touching the
Present*




[15] ABA-01073 + Eider Rodriguez = *Begira,*
laian ari dira / Mira, están layando / Look, They
Are Digging



[16] ABA-01425 + Danele Sarriguarte = *Argazki bati galdezka / Preguntas mirando a una foto / Questions to Ask While Looking at a Photograph*



- 
- ▶ Pero este orden no quiere decir nada más que eso, así que cada cual podrá comenzar por donde quiera y seguir a su antojo, el recorrido es libre absolutamente. Lo que no puede variarse es el hecho de que cada una de estas escritoras ha quedado asociada a una imagen de Abaitua, la que se le asignó, y que, con las gafas puestas, contemplándola, creó su relato sobre la imagen. Sus creaciones en la exposición no son para leer sino para escuchar a través de audioguías. En este volumen podremos leerlas y releerlas. Estas autoras y sus obras concretan el segundo 16 del título, son la palabra de la muestra, el texto del catálogo. La producción original ha sido en euskara, traduciéndose al español y al inglés para llegar a un público más amplio.
 - ▶ La exposición *Estereoskopiak 16+16*, como todas las muestras temporales, es efímera. Para hacerla durar en el tiempo está el presente volumen. Esperamos que la conjunción del pasado visual y el presente oral haga de esta experiencia algo memorable, al tiempo que sirva de merecido reconocimiento a Eulalia Abaitua gracias a tan singulares embajadoras. Ojala así sea.

Maite Jimenez

- ▶ Hala ere, ordena horrek ez du besterik adierazten. Hortaz, bakoitza nahi duen tokitik abiatu ahal izango da, eta nahierara jarraitu gero, ibilbidea guztiz askea baita. Idazle bakoitza Abaituaren irudi bati lotuta geratu da, hain zuzen, esleitu zitzaion irudiari. Gero, betaurrekoak jantzita eta irudia begiztatuz, irudiari buruzko kontakizuna sortu du. Hori, beraz, ezin da aldatu. Erakusketako sorkuntza-lanak ez dira irakurtzeko egin, audiogiden bidez entzuteko baizik. Liburuki honetan nahi adina aldiz irakurri eta berrirakurri ahal izango ditugu. Egile horiek eta haien lanek gauzatzen dute izenburuko bigarren 16 zenbakia, erakusketako hitza eta katalogoko testua dira. Jatorrizko ekoizpena euskaraz egin da, eta, gero, espainierara eta ingelesera itzuli da, jende gehiagorengana iristeko asmoz.
- ▶ Aldi baterako erakusketa guztiak bezalaxe, *Estereoskopiak 16+16* iraupen gutxikoa da. Denboran iraun dezan, liburuki hau sortu dugu. Espero dugu ikusizko iragana eta ahozko oraina bat egitean esperientzia gogoangarria sortzea, eta, aldi berean, enbaxadore berezi hauen bidez, ondo merezitako aitortpena egitea Eulalia Abaituari. Hala izan bedi.

Maite Jimenez

EUSKAL IDAZLEAK / AUTORAS VASCAS

▶ KATIXA AGIRRE MIGUELEZ

▶ Gasteiz (Araba, 1981). Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea da eta UPV/EHUko irakaslea. 2007an argitaratu zuen bere aurreneko ipuin-liburua *Sua Falta Zaigu* (Elkar) eta idazle gazteentzako Igartza Sariari esker *Habitat* (Elkar, 2009) plazaratu zuen. 2015ekoa da bere lehenengo eleberria, *Atertu arte Itxaron* (Elkar). Ume zein gazteentzako hainbat istorioen egilea ere bada, hala nola, Amaia Lapitz arkeologo gaztearen eleberri saila.

▶ Vitoria-Gasteiz (Álava, 1981). Es doctora en Comunicación Audiovisual y profesora de la UPV/EHU. En 2007 publicó su primer libro de cuentos *Sua Falta Zaigu* (Elkar) y también *Habitat* (Elkar, 2009) gracias a la beca Igartza para jóvenes escritores. Su primera novela, *Atertu arte Itxaron* (Elkar), es de 2015. Es autora de varias obras para el público infantil y juvenil, entre otras la serie de novelas de la joven arqueóloga Amaia Lapitz.

▶ UXUE ALBERDI ESTIBARITZ

▶ Elgoibar (Gipuzkoa, 1984). Idazlea eta bertsolaria. Kazetaritzan lizentziatua. Literaturan, helduentzako bi ipuin-liburu *Aulki bat Elurretan*, (Elkar, 2007) eta *Euli-giro* (Susa, 2013), eta nobela bat *Aulki-jokoa*, (Elkar, 2009) argitaratu ditu. Haur literaturan ere hainbat lan ditu argitaratuak, besteak beste: *Txikitzen zaretenean*, *Zure denboraren truke*, *Ezin dut eta zer?* eta *Bi kobazulo* ipuinak. Iaz *Besarkada* album ilustratua kaleratu zuen Maite Gurrutxaga ilustratzailearekin elkarlanean. Bertsolaritzan, *Kafkaren aulkia* eta *Ez da kasualitatea* emanaldiak martxan jarri ditu hainbat kideekin batera eta bertsolaritzari eta feminismoari buruzko zenbait artikuluren egilea da.

▶ Elgoibar (Gipuzkoa, 1984). Escritora y bersolari. Licenciada en Periodismo. En el campo literario ha publicado dos libros de cuentos para adultos, *Aulki bat Elurretan* (Elkar, 2007) y *Euli-giro* (Susa, 2013), y una novela, *Aulki-jokoa* (Elkar, 2009). Y en literatura infantil también ha publicado bastantes obras, entre otras los cuentos *Txikitzen zaretenean*, *Zure denboraren truke*, *Ezin dut eta zer?* y *Bi kobazulo*. El pasado año vio la luz *Besarkada*, un álbum ilustrado en colaboración con la ilustradora Maite Gurrutxaga. En el ámbito del bersolarismo ha puesto en marcha junto con otros colegas los programas *Kafkaren aulkia* y *Ez da kasualitatea* y es autora de varios artículos sobre bersolarismo y feminismo.

▶ AURELIA ARKOTXA

▶ Aurélie Arcocha-Scarcia irakasle-ikerlaria da Bordeaux-Montaigne unibertsitatean eta idazlea. Ikerlari bezala liburuak eta artikuluak agertu izan ditu euskal testu zaharrez eta garaikideez. Poeta bezala bost liburu plazaratu ditu "Aurelia Arkotxa" izenarekin: *Atari ahantziak* (1993), *Septentrio* (euskaraz 2001), *Septentrio* (parte baten autoitzulpena frantsesez 2006), *Fragmentuak* (2009), *Bidaide* (2013). Literatura aldizkarietan parte hartu izan du eta guti gora behera 10 urtez kronika poetikoak publikatu izan ditu astero *Berria* "Maratila" zutabearen, egunkariak zutabea zerratu arte (2014).

▶ Aurélie Arcocha-Scarcia es profesora-investigadora en la universidad Bordeaux-Montaigne, y escritora. Como investigadora ha publicado libros y artículos sobre textos vascos antiguos y contemporáneos. Como poeta ha editado, bajo el nombre de "Aurelia Arcotxa" cinco libros: *Atari ahantziak* (1993), *Septentrio* (en euskera 2001), *Septentrio* (auto traducción al francés de una parte, 2006), *Fragmentuak* (2009), *Bidaide* (2013). Ha tomado parte en revistas literarias y durante cerca de 10 años escribió semanalmente crónicas poéticas en la columna "Maratila" de *Berria*, hasta que el periódico cerró la columna (2014).⁸⁵

▶ YOLANDA ARRIETA MALAXETXEBARRIA

▶ Lea Artibaiko Etxebarrin jaio zen 1963an eta Usurbilen bizi da orain. Irakasletza, Antzerkia eta Kultura eta Gizarte Antropologia ikasi ditu. Bakarkako lana sormen tailerrekin uztartzen du, nitik gura. Iragana gaurkotu ahala geroa eraikitzea atsegin du. *Jostorratza eta haria* nobelarekin jaso zuen Irun Saria 1997an eta *Argiaren alaba* nobelagatik Gazte Literaturako Euskadi Saria 2015ean.

▶ Ipuinetik bizi da, aspaldiko le mari fidel: jana gorputzerako, lagunak bihotzerako eta kontuak arimarako.

▶ Nació en Etxebarria (Lea Artibai, Bizkaia) en 1963 y actualmente vive en Usurbil. Ha estudiado Magisterio, Teatro y Antropología Social y Cultural. El trabajo individual lo enlaza con talleres creativos, "del yo al nosotros" (*nitik gura*). Le gusta construir el futuro a medida que actualiza el pasado. Con la novela *Jostorratza eta haria* recibió el Premio Ciudad de Irún 1997 y con la novela *Argiaren alaba* el Premio Euskadi de Literatura Juvenil 2015.

▶ Vive del cuento, fiel al viejo lema: pan para el cuerpo, los amigos para el corazón y cuentos para el alma.

▶ LEIRE BILBAO BARRUETABEÑA

- ▶ Ondarroa (Bizkaia, 1978). 2006an argitaratu zuen bere lehen poesia liburua *Ezkatak* eta 2011an bigarrena *Scanner*, biak Susa argitaletxearen eskutik. Hamalau liburutik gora ditu haur literaturari dagokionean. Bere poemetako batzuk kantu bihurtu dituzte euskal kantari eta talde zenbaitzuk. Eta antologia ezberdinetan jasoak eta hamaika hizkuntza ezberdinetara itzuliak izan dira beste hainbat. Euskarara ere itzuli izan ditu autore ezberdinen poemak.
- ▶ Ondarroa (Bizkaia, 1978). En 2006 publicó *Ezkatak*, su primer libro de poesía, y en 2011 *Scanner*, el segundo, ambos en la editorial Susa. Con respecto a la literatura infantil, tiene en su haber más de 14 obras. Algunos cantantes y grupos musicales han adaptado varios de sus poemas. Otros tantos han sido traducidos a varios idiomas y recogidos en diversas antologías. También ha traducido al euskera poemas de distintos autores.

▶ ITXARO BORDA

- ▶ Baionan sortua, 1959an. Hamaika poema liburu eta nobelaren egilea da. 2002an Euskadi Literatura Saria eskuratu zuen %100 *Basque* elaberriarentzat. Saiakerak, kronikak, askotariko artikuluak ere plazaratu ditu. Historia garaikidean lizentziatua da. Baiona Santizpirituko postan ari da lanean.
- ▶ Azken agerpenak: *Boga, Boga*, Susa 2012 (nobela) *Zure Hatzaren ez Galtzeko*, Elkar, 2014 (poesia) *Ultimes Déchets*, Maiatz, 2015 (mikronobela, elebiduna).
- ▶ Nacida en Baiona (Lapurdi, 1959). Es autora de varios libros de poesía y novela. En el año 2002 recibió el Premio Euskadi de Literatura por su novela *100% Basque*. Ha publicado también ensayos, crónicas y artículos varios. Licenciada en Historia Contemporánea, trabaja en Correos de Santizpiritu, Baiona.
- ▶ Últimas publicaciones: novela *Boga, Boga* (Susa, 2012), poesía *Zure Hatzaren ez Galtzeko* (Elkar, 2014) y micro-novela bilingüe *Ultimes Déchets*, (Maiatz, 2015)

▶ TERE IRASTORTZA

- ▶ Zaldibia (Gipuzkoa, 1961). Beasaingo Andramendi Ikastolako zuzendaria. Bergarako Idazle Eskolako sortzailea, irakaslea eta zuzendaria. Poeta. Hamaika poema liburu argitaratu ditu Pamielan eta bi aldiz 86
- ▶ jaso du Espainiako Poesia Saria Nazionala. Azken bi liburuak poema-liburuak izan dira: *Eta orain badakit* (2011) eta *Mundua betetzen zenuten* (2015). Saiakera eta iritzi-artikuluak ere idatzi eta argitaratu ohi ditu. Bere lanak ingelesera, gaztelarrera, katalanerara etab. itzuliak izan dira. www.tereirastortza.com
- ▶ Zaldibia (Gipuzkoa, 1961). Directora de la ikastola Andramendi de Beasain. Creadora, profesora y directora de la Escuela de Escritores de Bergara. Poeta. Ha publicado varias obras de poesía en la editorial Pamiela y ha recibido en dos ocasiones el Premio de la Crítica de poesía en euskera. Sus dos últimos libros han sido poemarios: *Eta orain badakit* (2011) y *Mundua betetzen zenuten* (2015). También ha escrito y publicado ensayos y artículos de opinión. Sus poemas han sido traducidos al inglés, español, catalán... Su obra puede seguirse en www.tereirastortza.com

▶ KARMELE JAIO EIGUREN

- ▶ Gasteiz (Araba, 1970). Hiru ipuin liburu –*Hamabost zauri* (2004), *Zu bezain ahul* (2007) eta *Ez naiz ni* (2012)–, bi nobela –*Amaren eskuak* (2006) eta *Musika airean* (2009)– eta poesia liburu bat, *Orain hilak ditugu* (2015) argitaratu ditu. Bere lanak hainbat hizkuntzetara itzuli dira. *Amaren eskuak* nobelan oinarrituta, pelikula egin zuen Mireia Gabilondo zuzendariak eta *Ecografías* ipuina antzerkirako moldatu zuen Ramón Barea zuzendariak 2010ean. Bere ipuinak hainbat antologietan jaso dira.
- ▶ Vitoria-Gasteiz (Álava, 1970). Ha publicado tres libros de relatos, *Hamabost zauri* (2004), *Zu bezain ahul* (2007) y *Ez naiz ni* (2012), dos novelas, *Amaren eskuak* (2006) y *Musika airean* (2009), y un libro de poesía, *Orain hilak ditugu* (2015). Sus trabajos han sido traducidos a varios idiomas. La directora Mireia Gabilondo dirigió la película *Amaren eskuak*, basada en su novela y el director Ramón Barea adaptó para teatro el cuento *Ecografías* en 2010. Sus cuentos se han recogido en varias antologías.

▶ **MARIASUN LANDA ETXEBESTE**

- ▶ Filosofia eta Letretan lizentziatua, ohorezko irakasle laguntzailea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Egile moldakorra da, eta haur nahiz gazteei zuzenduriko euskarazko bere literatur lanak hamabost hizkuntza baino gehiagora itzuli dira, arabiera, korearra edota errusiera tartean. Sari ugari jaso ditu; besteak beste, Euskadi Saria (1991) eta Sari Nazionala (2003). *Duela gutxi*, 2014an, Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Saria jaso du. Jakiunde-Zientzien, Arteen eta Letren Akademiako kide da.
- ▶ Licenciada en Filosofía y Letras, es profesora colaboradora honorífica de la Universidad del País Vasco. Autora versátil, sus obras de Literatura Infantil y Juvenil en euskera han sido traducidas a más de quince idiomas entre los que se encuentran el árabe, el coreano o el ruso. Entre otros premios ha recibido el Premio Euskadi (1991) y el Premio Nacional (2003). Recientemente, ha sido galardonada con el Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2014. Es miembro de Jakiunde (Academia de las Ciencias, las Artes y las Letras)

▶ **MIREN AGUR MEABE PLAZA**

- ▶ Lekeitio (Bizkaia, 1962). Magisteritza eta Euskal Filologia ikasi zituen, eta nazioarteko hainbat literatur jardunalditan parte hartu du. Kritikaren Saria jaso zuen 2001ean eta 2011n *Azalaren kodea* eta *Bitsa eskuetan* poema-liburuengatik, eta Euskadi Saria hiru aldiz *Itsaslabarreko etxea*, *Urtebete itsasargian* eta *87*
- ▶ *Errepidea* gazte-nobelei esker. *Kristalezko begi bat* nobelak kritikaren eta irakurleen harrera beroa jaso zuen, eta beste hizkuntza batzuetara itzuli dute.
- ▶ Lekeitio (Bizkaia, 1962). Maestra y filóloga vasca, ha participado en diversos eventos literarios internacionales. Recibió el Premio de la Crítica en 2001 y 2011 por los poemarios *Azalaren kodea (El código de la piel)* y *Bitsa eskuetan (Espuma en las manos)*, así como el Premio Euskadi de Literatura Juvenil en tres ocasiones, por las obras *Itsaslabarreko etxea (La casa del acantilado)*, *Urtebete itsasargian (Un año en el faro)* y *Errepidea (La carretera)*. Su novela *Kristalezko begi bat (Un ojo de cristal)*, que obtuvo una calurosa acogida de crítica y lectores, ha sido traducida a otras lenguas.

▶ **LAURA MINTEGI LAKARRA**

▶ Lizarra (Nafarroa, 1955). Bizkaian bizi da. Historian lizentziatua eta Psikologian doktoratua, UPV-EHUko irakaslea da Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean. Euskal PEN-Basque PENeko bersortzailea eta lehendakaria izan da (2004-2012) eta zuzendaritza taldekoa da egun. Narrazio laburrak idatzi ditu, bost nobela eta saiakera liburuak. Nobela batzuk argitara eman dira beste hizkuntza batzuetan, hala nola, ingelesa, gaztelania, alemanera eta nederlandera. Ohiko kolaboratzailea da komunikabideetan, ahozkoetan zein idatzizkoetan.

▶ Estella (Navarra, 1955). Vive en Bizkaia. Licenciada en Historia y doctora en Psicología, es profesora de la UPV-EHU, en el Departamento de Didáctica de la Lengua y Literatura. Ha sido refundadora y presidenta de Euskal PEN-Basque PEN (2004-2012) y actualmente está en el equipo de dirección. Ha escrito narraciones cortas, cinco novelas y libros de ensayo. Algunas novelas se han traducido a otros idiomas, entre ellos inglés, castellano, alemán y neerlandés. Es colaboradora habitual en los medios de comunicación, tanto audiovisuales como en la prensa escrita.

▶ **LOURDES OÑEDERRA OLAIZOLA**

▶ Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa, 1958). Gasteizen bizi da 1982aren azkenaz geroztik. Filologia Hispanikoan lizentziatua da eta Filologian doktore. UPV/EHUko katedradun, Gasteizko Letren Fakultatean. Euskaltzain Osoa da 2007az geroztik eta *Societas Linguistica Europaeae*ko Batzorde Eragileko kide izan da (2011-2014). Fonologiazko artikulua eta liburuak argitaratu ditu eta sorkuntza lanak ere bai: *Eta emakumeari sugeak esan zion* (2000 Euskadi Sarria) eta *Intemperies (Babes bila)* nobelak; *Anderson anderearean gutizia*, *Beranduegi* eta *Vous me faites peur* ipuinak. Patrick Süskind-en *Die Gesichte von Herrn Sommer* itzuli zuen euskarara (*Sommer jaunaren istorioa*). Jabier Muguruzaren azken hiru diskoek Oñederraren hitzak dituzten kanta bana dute (*Gauetz iristea*, *Yessica*, *Egunkari puska bat*). Halaber *Ere*, *Oh Euzkadi!*, *Egunkaria*, *Diario de Noticias de Álava*, *Argia*, *Hika*, *Bakeaz* agerkerietan ere idatzi du. Orain *Galde* aldizkarian idazten du erregulariki.

▶ Donostia-San Sebastián (Guipúzcoa, 1958). Vive en Vitoria/Gasteiz desde 1982. Es licenciada en Filología Hispánica, doctora en Filología Vasca y catedrática de la UPV/EHU en la Facultad de Letras de Vitoria/Gasteiz. Miembro de Euskaltzaindia desde 2007 y de la Comisión Ejecutiva de *Societas Linguistica Europaea* (2011-2014). Ha publicado varios libros y artículos sobre fonología y también obras literarias: las novelas *Eta emakumeari sugeak esan zion* (Premio Euskadi 2000) e *Intemperies*; los relatos *Anderson anderearean gutizia*, *Beranduegi* y *Vous me faites peur*. Ha traducido al euskera la obra de Patrick Süskind *Die Gesichte von Herrn Sommer (Sommer jaunaren istorioa)*. Jabier Muguruza ha versionado textos suyos en sus tres últimos discos (*Gauetz iristea*, *Yessica*, *Egunkari puska bat*). Asimismo ha escrito en *Ere*, *Oh Euzkadi!*, *Egunkaria*, *Diario de Noticias de Álava*, *Argia*, *Hika*, *Bakeaz*. En la actualidad publica regularmente en la revista *Galde*.

▶ EIDER RODRIGUEZ MARTIN

- ▶ 1977an jaio zen Errenteria-Oreretan (Gipuzkoa). Publizitate eta Zinema ikasketak egin ditu. Editore eta gidolari lanetan jardundakoa, egun irakaslea da EHU. Hiru ipuin-liburu kaleratu ditu: *Eta handik gutxira gaur* (Susa, 2004), *Haragia* (Susa, 2007) eta *Katu jendea* (Elkar, 2010); Irene Nemirovskyren *Le bal* (*Dantzaldia*) eleberriaren itzultzaile ere bada. Bere azken lana *Itsasoa da bide bakarra. Joseba Sarrionandia irakurriz* (2014) saiakera da.
- ▶ Nació en Rentería-Orereta (Gipuzkoa) en 1977. Ha realizado estudios de Publicidad y Cine. Tras haber trabajado como editora y guionista, actualmente es profesora de la UPV/EHU. Ha publicado tres libros de relatos: *Eta handik gutxira gaur* (*Y poco después ahora*), *Haragia* (*Carne*) eta *Katu jendea* (*Un montón de gatos*). También ha traducido al euskera la novela *Le bal* (*Dantzaldia*) de Irene Nemirovsky. Su último trabajo es el ensayo *Itsasoa da bide bakarra. Joseba Sarrionandia irakurriz* (2014).

▶ DANELE SARRIUGARTE MOCHALES

- ▶ Elgoibar (Gipuzkoa, 1989). Itzulpengintza eta literatur teoriako ikasketak egin ditu, eta gaur egun itzultzaile autonomo gisa dihardu, batik bat. 2014an *Erraiak* eleberria idatzi zuen. Orduz geroztik hainbat hedabiderek kolaboratu du iritzi-egile eta artikulugile gisa, besteak beste, *Argian*, *Berria* eta *Euskadi Irratian*. Horrez gain, hainbat irakurle-talde gidatzen ditu eta kazetari-lanak egiten ditu *Hitzen Uberan* atarian. Donostian bizi da.
- ▶ Elgoibar (Gipuzkoa, 1989). Ha realizado estudios de traducción y teoría de la literatura y actualmente se dedica a la traducción de forma autónoma. En 2014 escribió la novela *Erraiak*. Desde entonces ha colaborado en varios medios como comentarista y articulista, entre otros en *Argia*, *Berria* y *Euskadi Irratia*. Además dirige varios talleres de literatura y trabaja de periodista en el portal *Hitzen Uberan*. Vive en Donostia/San Sebastián.

▶ ANA URKIZA IBAIBARRIAGA

- ▶ 1969an sortu zen Ondarroan eta Donostian bizi da gaur egun. Informazio Zientzietan lizentziatua eta Enpresa Komunikazioan aditua. Hainbat komunikabidetako kolaboratzailea da eta Bankoa Crédit Agricoleko giza baliabideen zuzendaria.
- ▶ Helduentzako hiru ipuin-bilduma idatzi ditu: *Desira izoztuak* (2000), *Bekatuak* (2005), eta *Mamuak* (2014) eta, horiez gain, poesia, aforismoak, biografia eta haur eta gazte literatura argitaratu du; baita *Zortzi unibertso, zortzi idazle* (2006) elkarrizketa liburua ere.
- ▶ Nacida en Ondarroa en 1969, vive actualmente en Donostia/San Sebastián. Licenciada en Ciencias de la Información y experta en Comunicación de Empresa. Es colaboradora de varios medios de comunicación y directora de Recursos Humanos de Bankoa Crédit Agricole.
- ▶ Ha escrito tres colecciones de cuentos para adultos: *Desira izoztuak* (2000), *Bekatuak* (2005), y *Mamuak* (2014); además ha publicado poesía, aforismos, biografía, y literatura infantil y juvenil y también el libro de entrevistas *Zortzi unibertso, zortzi idazle* (2006).⁸⁹

▶ ARANTXA URRETABIZKAIA BEJARANO

- ▶ Donostia (Gipuzkoa, 1947). Idazle eta kazetari. Egunkari, irrati nahiz telebistan egiten du lan. Idazle gisa, kontakizungintzan nabarmendu da: besteak beste, *Zergatik Panpox*, *Koaderno Gorria*, *3 Mariak*, *Zuri beltzeko argazkiak*, guztiak gaztelerara eta beste hizkuntza batzuetara itzuliak.
- ▶ Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa, 1947). Es escritora y periodista. Trabaja en prensa, radio y televisión. Como escritora ha destacado en narrativa con, entre otras, las obras *Zergatik Panpox*, *Koaderno Gorria*, *3 Mariak*, *Zuri beltzeko argazkiak*, que se han traducido al español y otros idiomas.



Estereoskopiak: 16+16

EULALIA ABAITUA

- ▶ Bilbon jaio zen 1853ko urtarrilaren 25ean, familia burges batean eta María Elvira Juliana izenarekin bataiatu zuten Bariko San Nikolas elizan. Handik hilabetera hil zen bere ama, M^a Eulalia Allende-Salazar Eguia eta orduan senitartekoak Eulalia deitzen hasi zitzaizkion, amaren oroimenez. Aitak, Luis de Abaitua y Adarok, inude bat kontratatu zuen Eulalia eta bere anaia Felipe hazteko. Eulalia osasuntsu eta alai hazi zen, baina pinpirin samarra zenez aitak ilea motz-motz ebakitzen zion. Bartzelonako Sagrado Corazón de Jesús de Sarriá eskolan ikasi zuen.
- ▶ Luis Abaituak odolkidetasun, adiskidetasun eta negozio harremanak zeuzkan Sevillan bizi zen Juan Ygnacio Narciso de Olano merkatariarekin. Hura eta bere emazte Carlota Picavea de Lesaca hil zirenean (1864), Luis izendatu zuten bi seme-alaba gazteen tutore eta zaintzaile: Juan Narciso eta Ana. Handik aurrera, Eulalia eta Ana lagun min egin ziren eta, gainera, Abaitua eta Olano neba-arreben arteko ezkontzak mamitzen hasi ziren.
- ▶ 1871an, Luis Abaitua Liverpoolen bizi zen bere familiarekin, *Shaw Street* kaleko 69 zenbakian. Hiri berean *St. Francis Xavier* eliza katolikoan ezkondu ziren bi bikoteak 1871ko maiatzaren 16an, Eulalia Juan Narcisorekin eta Felipe Anarekin.
- ▶ 1876an, Luis Abaitua hil ondoren, bi bikoteak Begoñako elizatean hasi ziren bizitzen. Eulalia eta Juan Narcisok hantxe eraiki zuten *Palacio del Pino* jauregia. Etxe horretan hazi zituen Eulaliak bere lau seme-alabak: Carlota, Andrés, Javier eta Concepción. Gainera, bertan askatu zuen argazkigintzarako zuen grina; laborategi bat instalatu zuen etxe sotoan eta bere inguruko mundua islatu zuen.
- ▶ Eulaliak Ingalaterran deskubritu zuen argazkigintza. Beirazko xafla estereoskopikoak erabiltzen zituen gehien, positiboak zein negatiboak, 4,5x10,7 cm-ko formatuan eta gelatinobromurozko emultsioarekin. Bere familiaren irudiez gain, herri xehea hartu zuen gai nagusizat, txiroak eta ia beti anonimoak, naturaltasun handiz erretratatu zituelarik.
- ▶ 1909an alargundu ondoren, 1941ean alde egin zuen bere bihotzeko Begoñatik eta Bilboko Kale Nagusiko pisu batera joan zen, hantxe hil zelarik 1943ko irailaren 16an.

EULALIA ABAITUA

▶ EULALIA ABAITUA ALLENDE-SALAZAR

- ▶ Eulalia Abaitua nació en Bilbao el 25 de Enero de 1853, en el seno de una familia burguesa y fue bautizada con el nombre de María Elvira Juliana en la iglesia de San Nicolás de Bari. Al mes moría su madre, M^ª Eulalia Allende-Salazar Eguia, y la familia comenzó a llamarle Eulalia en memoria de su progenitora. Su padre, Luis de Abaitua y Adaro, contrató una nodriza para su crianza y la de su hermano mayor, Felipe. Eulalia creció sana y alegre aunque era algo presumida por lo que su padre solía raparle el pelo. Cursó estudios en el colegio del Sagrado Corazón de Jesús de Sarriá de Barcelona.
- ▶ Luis Abaitua tenía lazos de consanguinidad, amistad y negocios con el comerciante Juan Ygnacio Narciso de Olano, afincado en Sevilla. Tras la muerte de éste y la de su mujer, Carlota Picavea de Lesaca en 1864, Luis fue nombrado tutor y curador de sus dos hijos menores: Juan Narciso y Ana. Esta circunstancia favorecerá los estrechos lazos de amistad entre Eulalia y Ana y auspiciará los futuros matrimonios entre los hermanos Abaitua y los Olano.
- ▶ En 1871 Luis Abaitua residía con la familia en Liverpool, en el 69 de *Shaw Street*. Será en la iglesia católica *St. Francis Xavier* de la misma ciudad donde se casen Eulalia con Juan Narciso y Felipe con Ana, el 16 de mayo de 1871.⁸³
- ▶ Tras el fallecimiento de Luis Abaitua, sucedido en 1876, los dos matrimonios se trasladan a la anteiglesia de Begoña. Eulalia y Juan Narciso construirán allí el *palacio del Pino*. En esa casa Eulalia criará a sus cuatro hijos: Carlota, Andrés, Javier y Concepción y dará rienda suelta a su pasión por la fotografía, instalando en el sótano un laboratorio y retratando el mundo que transcurre a su alrededor.
- ▶ Eulalia descubrió la fotografía en Inglaterra. Su material preferido fueron las placas estereoscópicas de vidrio, positivas y negativas, con formato 4,5 x 10,7 cm y emulsión de gelatinobromuro. Aparte de las imágenes de su propia familia, su temario principal son las personas sencillas, humildes y casi siempre anónimas, retratadas con extrema naturalidad.
- ▶ Tras enviudar en 1909, en 1941 dejará su amada Begoña para trasladarse a un piso de la Gran Vía bilbaína donde morirá el 16 de septiembre de 1943.

FITXA TEKNIKOA

- Formatu estereoskopikoa eta beirazko euskarria duten zuri-beltzeko 16 argazki
- Tamaina 110x110 zm
- 16 audiodigida
- Argibide-taulak
- 3Dko betaurrekoak
- Bildumako objetuen beira-arazá:



FICHA TÉCNICA

- 16 imágenes en b/n en soporte de vidrio con formato estereoscópico
- Tamaño 110x110 cm
- 16 audioguías
- Paneles informativos
- Gafas 3D
- Vitrina con objetos de la colección:



- ▶ Estereoskopioa / Estereoscopio
- ▶ Circa 1900
- ▶ Kartoi gainean muntatutako argazki estereoskopikoak ikusteko tresna.
- ▶ Aparato para visionar fotografías estereoscópicas montadas sobre cartón.

- ▶ Estereoskopioa / Estereoscopio
- ▶ Circa 1900
- ▶ Kartoi gainean muntatutako argazki estereoskopikoak ikusteko tresna.
- ▶ Aparato para visionar fotografías estereoscópicas montadas sobre cartón.

- ▶ Mahai gaineko estereoskopioa / Estereoscopio de sobremesa
- ▶ XIX. mendearen amaiera / Finales del siglo XIX
- ▶ Karrusela duen tresna, 50 argazki estereoskopiko ikusteko, bai beira positiboan bai kartoian. Kutxaren alboetan dauden bi eskutoki birakariren bidez kliskatzen da.
- ▶ Aparato con carrusel para visionar 50 fotografías estereoscópicas, tanto en vidrio positivo como en cartón. Se acciona mediante dos pomos giratorios situados en los laterales de la caja.

- ▶ Estereoskopioa / Estereoscopio
- ▶ Circa 1910
- ▶ Beira edo kartoi gainean muntatutako argazki estereoskopikoak ikusteko tresna. 4,5 x 10,7 cm-ko formatua.
- ▶ Aparato para visionar fotografías estereoscópicas en vidrio o montadas sobre cartón. Formato 4,5 x 10,7 cm.
- ▶ Dohaintza / Donación: Amaia Aguirrezabal



- ▶ Le Monobloc argazki-kamera / Cámara fotográfica "Le Monobloc"
- ▶ Circa 1920
- ▶ Beira gainean 6 x 13 cm-ko argazki estereoskopikoak egiteko tresna. Jeanneret & Cie-Parisek Frantzian egindakoa. Adolfo Duo Izaurieta (Bilbo, 1875-1950) argazkilari afizionatuarena izan zen.
- ▶ Aparato para realizar fotografías estereoscópicas sobre vidrio de 6 x 13 cm. Fabricado en Francia por Jeanneret & Cie-París. Perteneció al fotógrafo aficionado Adolfo Duo Izaurieta (Bilbao, 1875 - 1950).
- ▶ Dohaintza / Donación: Hermanas Larracoechea Ugarte ahizpak.

- ▶ Unis estereoskopia / Estereoscopio "Unis"
- ▶ Circa 1910
- ▶ Beira edo kartoi gainean muntatutako argazki estereoskopikoak ikusteko tresna. 6 x 13 cm-ko formatua.
- ▶ Unis-Parisek Frantzian egindakoa. Adolfo Duo Izaurieta (Bilbo, 1875-1950) argazkilari afizionatuarena izan zen.
- ▶ Aparato para visionar fotografías estereoscópicas en vidrio o montadas sobre cartón. Formato 6 x 13 cm. Fabricado en Francia por Unis-París. Perteneció al fotógrafo aficionado Adolfo Duo Izaurieta (Bilbao, 1875 - 1950)
- ▶ Dohaintza / Donación: Hermanas Larracoechea Ugarte ahizpak.

- ▶ Ica-polyscop argazki-kamera / Cámara fotográfica "Ica-polyscop"
- ▶ Data / Fecha: 1911-1925
- ▶ Beira gainean 6 x 13 cm-ko argazki estereoskopikoak egiteko tresna. Alemaniako Dresde hirian egindakoa.
- ▶ Aparato para realizar fotografías estereoscópicas sobre vidrio de 6 x 13 cm. Fabricado en Dresde, Alemania.

- ▶ Ica-polyscop argazki-kamera / Cámara fotográfica "Ica-polyscop"
- ▶ Data / Fecha: 1911-1925
- ▶ Beira gainean 4,5 x 10,7 cm-ko argazki estereoskopikoak egiteko tresna. Alemaniako Dresde hirian egindakoa.
- ▶ Aparato para realizar fotografías estereoscópicas sobre vidrio de 4,5 x 10,7 cm. Fabricado en Dresde, Alemania.


- ▶ Estereoskopioa / Estereoscopio
 - ▶ Circa 1900
 - ▶ Kartoi gainean muntatutako argazki estereoskopikoak ikusteko tresna.
 - ▶ Ricardo Bastida (Bilbo, 1879-1953) arkitektoarena izan zen.
 - ▶ Aparato para visionar fotografías estereoscópicas montadas sobre cartón
 - ▶ Pertenezió al arquitecto Ricardo Bastida (Bilbao, 1879-1953).
 - ▶ Dohaintza / Donación: Eloisa Larrea Bastida
-
- ▶ "El turismo práctico. Colección de vistas estereoscópicas de España"
 - ▶ Data / Fecha: 1920-1930
 - ▶ Editorea / Editor: Alberto Martín, Bartzelona / Barcelona
 - ▶ Ricardo Bastida (Bilbo, 1879-1953) arkitektoarena izan zen.
 - ▶ Pertenezió al arquitecto Ricardo Bastida (Bilbao, 1879-1953).
 - ▶ Dohaintza / Donación: Eloisa Larrea Bastida.
-
- ▶ "Pyrénées. Collection L. & L. Paris"
 - ▶ Circa 1870
 - ▶ Albuminazko hiru oihal / Tres tissues a la albúmina titulados: "St. JEAN DE LUZ. VUE GÉNÉRALE" / "St. JEAN DE LUZ. VUE DE CIBOURE" / "St. JEAN DE LUZ. CIBOURE ET LA RHUNE".
 - ▶ 8,7 x 17,7 cm-ko formatua. Formato 8,7 x 17,7 cm.
 - ▶ Editorea / Editor: Léon et Lévy, Ferrier et Soulier argazkilarien ondorengoak / Léon et Lévy, sucesores de Ferrier et Soulier.

- ▶ “SAN SEBASTIAN – 1ª serie”. Espainiako bisten multzoa – RELLEV bilduma / Serie Vistas de España - Colección RELLEV
- ▶ Circa 1930
- ▶ Kartoi meheak, gelatinazko eta bromurozko emultsioarekin, zenbakidunak eta tituludunak. 6 x 13 cm-ko formatua.
- ▶ Cartulinas con emulsión de gelatino-bromuro, numeradas y tituladas. Formato 6 x 13 cm.
- ▶ Egilea eta editorea / Autor y editor: J. Codina Torrás, Bartzelona / Barcelona.

- ▶ “BILBAO – 2ª serie”. Espainiako bisten multzoa – RELLEV bilduma / Serie Vistas de España - Colección RELLEV
- ▶ Circa 1930
- ▶ Kartoi meheak, gelatinazko eta bromurozko emultsioarekin, zenbakidunak eta tituludunak. 6 x 13 cm-ko formatua.
- ▶ Cartulinas con emulsión de gelatino-bromuro, numeradas y tituladas. Formato 6 x 13 cm.
- ▶ Egilea eta editorea / Autor y editor: J. Codina Torrás, Bartzelona / Barcelona.

- ▶ Beirazko plakak, gelatinazko eta bromurozko emultsioarekin. 6 x 13 cm-ko formatua.
- ▶ Eskuz idatzitako izenburuak eta paperezko markoa, erabilera errazteko.
- ▶ Placas de vidrio con emulsión de gelatino-bromuro. Formato 6 x 13 cm.
- ▶ Títulos manuscritos y marco de papel para facilitar su manipulación.
- ▶ Egilea-Editorea / Autor-Editor: anonimoa / anónimo.

- ▶ Beirazko plakak, gelatinazko eta bromurozko emultsioarekin. 4,5 x 10,7 cm-ko formatua.
- ▶ Bilboko, Biarritzeko, Gesaltza Añanako eta Zallako bistak.
- ▶ Placas de vidrio con emulsión de gelatino-bromuro. Formato 4,5 x 10,7 cm.
- ▶ Reproducen vistas de Bilbao, Biarritz, Salinas de Añana y Zalla.
- ▶ Egilea-Editorea / Autor-Editor: M. Rianza, Madril / Madrid - anonimoa / anónimo.

- 
- ▶ Egurrezko artxibategia, errailekin, 6 x 13 cm-ko formatuko beirazko 100 plaka gordetzeko.
 - ▶ Caja archivadora de madera con railes para almacenar 100 placas de vidrio en formato 6 x 13 cm.

 - ▶ 4,5 x 10,7 cm-ko formatuko beirazko plaka estereoskopikoak saltzeko eta gordetzeko kutxak.
 - ▶ Eulalia Abaituaren artxibokoak dira, eta batzuk Eulaliak berak errotulatuta daude.
 - ▶ Cajas de venta y archivo de placas estereoscópicas de vidrio en formato 4,5 x 10,7 cm.
 - ▶ Pertenezen al archivo de Eulalia Abaitua y algunas están rotuladas por ella misma.

ARGAZKIAK-FOTOGRAFÍAS







15+









